

# Ezpalak

JON TORNER

## Wikipediako argazkirik onena



*BLANDITZ ETA ZALDIAK* izena du Wikipediako 2008ko argazkirik onenak. Mikel Ortega euskaldunak atera du, eta Creative Commons lizentziarekin dagoenez, Richard Bratzek ukituak egin dizkio. [http://commons.wikimedia.org/wiki/File:Biandintz\_eta\_zaldiak\_-\_modified2.jpg]

## ACT antzerki jaialdia

ARTE ESZENIKOEN ESKOLEN Nazioarteko Jaialdia da ACT, eta Bizkaiko Antzerki Ikastegiak antolatuta ohi du. Ekainaren 9tik 13ra bitartean egingo da, eta antzezlan laburrak izango dira protagonista. Izan ere, antolatzaileek genero hori bihurtu dute jaialdiko sail nagusi, eta irabazleek 3.000 euroko saria jasoko dute. Euskal Herriko sei talde ariko dira Bilbon eta Barakaldon, Europako beste hainbat talderekin lehia.

**Yolanda Arrieta** idazleak gizarte postmoderno eta "autista" hartu du hizpide *Off-on* liburuan (Erein). Genero ugariko idazlanak bildu ditu, mikroipuinetatik hasi, poemetatik pasa eta aforismoetaraino.

**Elkar** diskoetxeak dozenaka euskal talde eta bakarlariren 60 abesti bildu ditu hiru bildumatan: *Gaupasa* (gure herrietako plazak alaitu dituzten taldeak), *Ama Eskual Herria* (Iparraldeko musikariak) eta *Rock eta Rollin* (euskal R&R-aren ordezkariak).

**Iker Larunbe** atarrabiarra gailendu da Euskadiko 29. Gipuzkoar Aurreku Txapelketan. Bera da txapelketa irabazi duen aurreneko nafarra.

**BBDO** agentzia argentinarrak irabazi du El Sol Publizitate Komunikazioaren Iberoamerikako Jaialdiko 'Platinozko Eguzkia' saria, Doritos produktuarentzat egindako *Que vuelvan los lentos* kanpainagatik. Donostian egin da El Sol jaialdia.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**EUREKA HOT 4**  
*World Champions*

**ROY LONEY & SEÑOR NO**  
*Got me a hot one*

**TRAVELLIN' BROTHERS**  
*Red hot & blue*

**IVAN JULIAN & CAPSULA**  
*The naked flame*

**MIGUEL SALVADOR PROJECT**

**HOTSAK DANTZAN 2**  
*Jimmy Bidasarretaren sukaltzean*

**BILL LYERLY**  
*Bill Lyerly hotsakaren otona*

**GASTEIZ BIG BAND**  
*EP 10<sup>o</sup> - Najera Zuzenean*

**WWW.HOTSAK.COM**

**errabal**  
[www.errabal.com](http://www.errabal.com)

**gaztelupeko HOTSAK**  
Euzkadi 21  
Toni Garmendia, Iñaki  
M. - 943 142 1030  
Fax - 943 142 1030  
garmendia@hotsak.com  
[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Itsas mirotz ulu zara, bardo!

*Itsas ulu zolia.*  
Benito Lertxundi.  
Elkar, 2008.

KANTUZ kantua dakar bardoak hastapenean, menditik heldu den Joxe Mendiague-ren eleetan: “Kantuz sortu naiz eta, kantuz nahi bizi. Kantuz igortzen ditut, nik penak ihesi. (...) Kantu frango utziko diotet mundian. Kantuz egin dezaten nitaz oroitzian”. Epitafio baterako ele ederrak, ahots zoliaz emanak.

Aire zolia dakar *Bakea* kantuak ere. Hitzak ere zoliak dira, sendoak: “Hauek denborak! Mundua atzaparretan duten hantuste mada-rikatuak dituzu bakearen paladina-rik!”. Minduraz ari duzu itsasoko ulu zolia.

*Ilargiaz* mintzo da segituan Jon Maiaren berbetan. Mundua ez da dirudiena. Kasu emaiouzu edertasunari: ilargiak tranpa egiten du eta zerua izarrez beterik duzu. Lilurgarria. Kasu!

*Hitzak* dator segidan. Oriotararen eleak dituzu: “Pentsamendu otzanduan egi bila dabilenak arrazoa errausten du”. *Kantuzen* legez Olatz Zugasti bikotearen laguntzaz ari da bardo. Kontuz, paroxismoa eraman zaitzakete. Ez dago arris-rik gabeko edertasunik. Bizitza arriskatzea da.

Bizitza bidaiatzea ere bada: “Geltokiko agurearen antzera, mendeak eta mendeak, zain egon denaren tristura nabari zen herri haretan”. Haretan? Gurean ote Jon? Ez dut nahi *Haiizeak jotzen zuen* herri hartako agure bilakatzea nahi. Ez bilakatzea

nahi, ez bilakatu nahi ere. Ez agure tristea bederen.

*Ni gatibu hartzeko* kantuan eme eleak aurkituko dituzu. Herriaren doinuetan emaniko ele eztiak dituzu Olatz Zugastirenak, emetasunari estekaturiko eztitasuna. Bizitza maitatzea, arriskatzea, bidaiatzea eta aukeratzea da. Bizitza ihes egitea da. Oharmena ontsa zorrozteko kantua dukezu.

Ihes egitea itzela da. *Itzala* kantua ere itzela da. Herri honetan epaileek bere itzala ez ezik, ilargia, eguzkia eta egia sar ditzakete kartzelan. Gezurra dirudi: itzala itzalean! Aire herrikoiek Andoni Egañaren hitzak dituzte ekarri.

*Partida trixtera Ternuarat*. “Adi neure haur xumeak seme alaba maiteak; galtzen baduzue aita, ama alarguna maitia” Epitafioa ederra izan liteke. Ez dago epitafiorik ordea. Itsasoak du bizitzen bardo. Bizi beharrez bizi du menturatsen, bizi ustean bizi baino nahiago du arriskatzea.

Badoa bardo *Marinel galduaren baladan*. Iñaki Azkune-ren hitzek dakarte eta daramate mezulari: “Ekiari txantxangorriak txio, leihoari ilunak adio, malko dario. Mezulari, joan hadi. Hatsa sar balekio!”.

Nik ere nire herriaren mirotz leinua maite dut, arraun orru, bihozkadaren oihu. Estimatsen zaitut marinela. Zaude uhinetan, zaude ene ametsetan, izan zaitetz mirotza. Ez zara inoiz bakarrik izango bardo-mirotza. Zure mirotz gogo nauzu-eta, eta izango! Itsas mirotz ulu zolia zara, zarete *Mirotzak!*

Eskerrik asko Bardo!



**URRUTI**  
Sport

- Piraguismoa
- Parapentea
- Paintball
- Alpinismoa
- Txirrindularitza
- Elurra
- Kayak...

Jose Maria Soroa 20 • 20013 Donostia  
Tel/Faxa: 943 27 61 96  
urruti@urruti.com • www.urruti.com

**Dive Tarpoon**  
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala  
48992 GETXO (Bizkaia)  
Tel / Faxe: 94 4912577  
divetarpoon@euskalnet.net  
www.divetarpoon.com